

IL AZALPEN PROBA • <i>Izar malkoak</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 200 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Burua atera zenuen komunetik. Toailarekin estalita zeunden. Nik ezer hoberik ezean, bidet alboan zegoen toaila txiki bat hartu nuen, baina ia ezer gabe hobeto egongo nintzen. Ez dakit zer itxura izango nuen kinka hartan.

–Irtzen egingo naiz –jakinarazi zenidan, eta niri geldi egoteko adierazi.

–Maider! –zure amaren ahotsa berehala iritsi zitzaidan. Komuneko atea erdi itxita utzi genuen, eta ezin nuen gauza handirik ikusi. Baina bai imajinatu. Buf.

–Kaixo, ama.

–Maider! Norbait ekarri al duzu etxera? –hitz zorrotzak izan ziren. Zakarrak.

Gero zure aitaren ahotsa entzun zenuen etxeko sarrera aldetik:

–Zer zabilta, Maider?

–Dutxan nengoen, aita.

–Irtzen zara? –galdetu zizun aitak–. Komunera joan behar dut.

IL AZALPEN PROBA • <i>Izar malkoak</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia	/ 2,5
Moldea	/ 2,5
Zuzentas.	/ 5
GUZTIRA	/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua **–lanean egin duzunari jarraiki–**: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. EZ idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 200 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Nork espero zezakeen zer gertatuko zitzaidan Jaionerekin egon eta egun gutxira? Zenbait gauza ezin dira birritan gertatu. Ezinezkoa da. Sinestezina. Probabilitate hutsa kontuan hartuz gero ezingo lirateke gertatu. Baina gure munduak bidezidor oso arraroak ditu, eta ezin direnak inola ere errepikatu, errepikatu ohi dira. Zer demontre egin dezaket nik horren aurrean?

Nire gelan nengoen, ordenagailuarekin. Oso gutxi geratzen zitzaidan lehen aipatutako web-orrialde hura hackeatzeko. Aitak atea zabaldu eta burua sartu zuen.

–Beñat.

–Jo, aita, zenbat aldiz esan behar dizut atea jotzeko sartu aurretik?